



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL  
COMITÉ VASCO DE FUTBOL SALA

2015/16 DENBORALDIA

## 24 ZK. DUN ZIRKULARRA

### ARETO FUTBOLEKO OHOREZKO GAZTE MAILARAKO IGOERA

#### FASEA

Areto Futboleko Euskal Batzorde honek, denboraldi honetarako Lehiaketa Planean ezarritakoaren arabera, lehiaketa hau antolatuko du, ondorengo araeu jarraiki.

#### **1. PARTE HARTZEN DUTEN KLUBAK**

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Gazte maila goreneko lehiaketetan hoberen sailkatu direnak.

Lehiaketa honen irabazleak Nazional Ohorezko Gazte Mailara igoko da.

#### **2. LEHIAKETA SISTEMA**

Hiru Batean txapelketa motan garatuko da. Partidak 20 minututakoak izango dira bakoitza, kronometratuak, honako partida ordenarekin

1 Partida	16.30tan	1P: GIPUZKOA - BIZKAIA
2 Partida	17.30tan	1 P GALTZAILEA – ARABA
3 Partida	18.30tan	1 P IRABAZLEA - ARABA

Zirkular honetan aurreikusten ez den guztian Areto Futboleko indarrean dagoen arautegian xedatutakoa ezarriko da.

#### **3. EGUNA ETA LEKUA**

Maiatzaren 21ean ospatuko da Billabonako Olaederra polikiroldegian.

#### **4. ARBITRAJEAK**

A.F.A.E.B.T.-k egingo du Epailen izendapena.

Epai ordainagiria A.F.A.E.B.T-ren kargu izango da.

.. /..



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL  
COMITÉ VASCO DE FUTBOL SALA

- 2 -

## **5. SARIAK**

Talde txapeldunari kopa.

## **6. ZIGORRAK**

Lehiaketa honen berezitasunengatik, Ligako zigorrak ez dute efekturik izango, bertan, geratuz hurrengo denboraldirako betetzeko.

Hau guztia klub lehiakideei, Lurralde Federakunde eta Areto Futboleko Arbitroen Euskal Batzordea Teknikoari jakinarazten zaie dagozkion ondoriotarako

2016 ko maiatzak 16, Bilbon

KEPA ALLICA BILBAO  
Secretario General



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL  
COMITÉ VASCO DE FUTBOL SALA

## **ARETO FUTBOLEKO OHOREZKO GAZTE MAILARAKO IGOERAREN ARAU OROKORRAK, “HIRU BATEAN” IZENKO SISTEMAREN ARABERA.**

### **JOKALARI KOPURUA**

Talde bakoitzak 12 jokalaririk aurkeztu ahalko ditu, gehienez, txapelketa osoan joka dezaten. Partida bat hasi ahal izateko, talde bakoitzak joko eremuan gutxienez sei jokalaririk izan beharko ditu jokatzeko eskuragarri, taldeko ordezkari batez gainera.

### **KANPORAKETAK**

Lehenengo partidaren kanporaturik jokalaririk oro ezin izango da bigarren partidarako jokalaririk zerrendan sartu, eta beste batez ordeztu beharko da.

### **BERDINKETAK**

Balizko berdinketak EFF-FVFK indarrean duen Araudiaren III. Liburuko 101.4 artikuluan ezarritakoaren arabera ebatziko dira:

- a) Txapelketaren partida guztiak kontutan harturik, jasotako eta sartutako golen diferentzia handienaren arabera.
- b) Sartutako gol kopurua handienaren arabera, txapelketa osoan zehar lortutako gol kopurua kontutan harturik.
- c) Elkarren artean jolastutako partiden emaitzen arabera.

Partida bakoitza bukatutakoan, emaitza zein nahi dela ere, hiru jaurtiketa egingo dira penalti-gunetik, taldeetarik batek irabazten duen arte. Emaitza hori kontutan hartuko da aldiaren sailkapen nagusian gerta daitezkeen berdinketak desegiteko azken aukera gisa.

Era berean, lehenengo partidaren berdinketarik gertatuz gero, jaurtiketa horien bidez erabakiko da zein den irabazle, bigarren partida jokatzeko aldera.

**-O-O-O-O-O-O-O-O-O-**